



# Bertsoak

I

Apirilaren amabostean  
eskutitz bat neregana  
usteagabea au da poza  
berak eman didana  
nola deten ain gogokoa  
ematen nauen lana  
laguntzaren eske nator  
Madalenarengana.

II

Beti bezela artu det nik  
Erretereri goguan  
laster deia izango nula  
pentsatuz nenguan  
al dan guzia egin nairik  
beti zuen onduan  
merezki aña sortzen bada  
gaur nere buruan

III

Konturatu naiz gogu aundiz  
asi zerate lanean  
laguntasuna bear da  
egin bear danean  
segi dezagun denok  
argita umore onean  
alaitasuna bear degu  
gaurko egunean.

IV

Egiñalean or dabilta  
pakerik ezin sortu  
obe genduke al balitza  
zuzen bide bat artu  
saia gaitezen denok  
ez dedin oso txartu  
aber iristen ote geran  
Europagandik gertu.

V

Alegindu bear genduke  
emen pakearen billa  
ustegabea sortu da  
ainbat naspilla  
batzuek zuzendu nai  
kontrakoak milla  
eska dezagun gurekin  
pakea dedilla.

VI

Momentu ontan gogoan det  
gure dan Miguel Pelay  
bere omenez bertso pare bat  
jarri nai diot berai  
Oarsogatik ainbat lan egin  
Amulletan ere bai  
olako gizonak ez dira  
aztutzen nola nai

VII

Zenbat lan egiten zigun  
danok degu goguan  
zartuta ere gaztea zala  
ematen baizuan  
buru oso argia zuen  
mutil bat pausuan  
olako asko bear genduke  
etxean eta auzoan.

VIII

Ez da erreza naiagatik  
bera aña izaten  
emen ari naiz orrengatik  
ni zerbait esaten  
gure ondoan balego  
zer atsegin litzaken  
baiñan emen betirako  
ez da inor izaten.

IX

Pasatu artean ezin artu  
ogeita lauko eguna  
umore ederrez danok  
egon bear genduna  
nola nagoan asko bezala  
urtetan gora juna  
barkatu nere ezina da  
paltatutzen duna.

X

Aldan guztia lagundu nai  
nola naizen nekatzen  
tristetu egiten naiz bela  
lanik ez bada tokatzen  
ordu gozogorikan iñun  
nik ez det pasatzen  
Amulletako apari egunean  
zuekin nago pentsatzen.

XI

Larogeita emerzortzi urtean  
eun garren urte muga  
nik ez nekian ori seguru  
eskutitzean agertu da  
ez daukat jartzerikan  
gauza orrekin duda  
leku oso segurutikan  
nigana ori eldu da.

XII

Zuengatikan aldan guzia  
egiteko nago gertu  
ordu pare bat pasatu arren  
ezin naiz aspertu  
ainbat erregali Erreteritik  
nola ditudan artu  
danak gogoako ditut nik  
ez dakit nola eskertu.

XIII

Talentuak bajatu zaizkit  
ez naiz sarritan juten  
bestela pozik egongo leike  
itz gozoak entzuten  
ez dakit orko lagunak  
zer grazi dezuten  
edo ez dakit zergatik ni  
ainbat maite nazuten.

XIV

Zer kontatuak badauzkat  
bateko edo besteko  
baiñan ez gaude oraindik  
mundu au ola uzteko  
oso gutxi palta zaigu  
balantzaka asteko  
paretangana arrimau bear  
soinean galtzak jatzeko.

XV

Mundu ontara sortuak  
eriotza degu zor  
badakigu ortik ez dala  
libratuko inor  
ikusten degu jua dirala  
hainbeste lagun jator  
pena ematen digu baiñan  
gurea ere badator.

XVI

Gustora pasatu ditut  
aurreko egunak  
pozez artzen degu au  
oitura ola degunak  
Oarsogatik egin ditzagun  
denok al ditugunak  
besterik gabe agur bat  
Erretereri eta lagunak.